

Nekane Jurada



**POSIBLE AL DA
IPARRAZ
BERE BURUAZ
BESTE EGITTEA?**

FORO ALTERNATIBOA

aldizkaria

2005

Fondo documental

EHK

Dokumentu fondoa

Euskal Herriko Komunistak


Posible al da Iparratz bere buruaz beste egitea?

Nekane JURADC
Ekonomilar

Este trabajo ha sido pasado a libro digital por militantes de EHK, para uso interno y forma parte del material de trabajo para el estudio, investigación y formación del pensamiento marxista y la historia de los comunistas vascos.

Euskal Herriko Komunistak

<http://www.ehk.eus>



POSIBLE AL DA IPARRAK BERE BURUAZ BESTE EGITEA?

Sarrera
Iparraldeko joera ekonomikoak
Lan merkatuaren malgutasuna
Aurrekontuen beregokipena
Gastu publikoaren murrezpena
Zama fiskalaren berbanaketa
Ondorioak

POSIBLE AL DA IPARRAK BERE BURUAZ BESTE EGITEA?

Itsaropenaren heriotzak bizitza erahiltzen du
(Ezezaguna)

Zenbat heriotza azken 50 urteetan N.M.Ek eta bere erakundeak zabaldu duten itsaropen ezagatik?

1994. Leku guztietatik, Ipar edo Hego, Ekialde edo Mendebalde, ideia bat: gaztaroaren idealismoak utopiak direla edo heldu gabeko intelektualeen ametsa, zerbaitetan hobetzeko produktibismoan erori arte produzitu egin behar da, ez soilik kontsumitzeko, kontsumismora pasatzeko baizik. Lurra gaixorik badago, berdin da, herri osoak desagertzen badira izkutatu egiten da, gero eta zabalagoak diren kolektiboak marginatzen badira desegin daitezenerako elementuak eskeintzen zaie..., disidentzi ahotsik badago hurbil ditzagun.

Txosten honetan perfilatu nahi dira Iparraldean, edo lehen munduan, N.M.Ek garatzen dituen politiken ondorena, ez Hegoaldean pairatzen duten ondorioak baino garrantzitsuago direla pentsatzen dugulako, Planeta bakarra dela azpimarratu nahi dugulako baizik. Guztiok itsasontzi berberan goazela, eta luxuzko geletatik ezin delako iraunkorki ahantzi makina-aretoetan, ezta sotoetan gertatzen dena, are gutxiago bipi gosetiak itsasontziko bazter guztietatik zabaldu direnean. Geure txoko lasaietan eseritak jarraitzen badugu, pentsamendua anestesiatzen eta "merkatuko indarren" aurkako defentsarik ez daudela pentsatzen badugu gure itsaropen hiltzen uzten dugun bitartean, N.M.Fri, edozein izaerako izanik ere bizitzak hiltzen jarraitzea bermatzen badiogu, honakoan Iparraldeko bizitza izango da.

SARRERA

Bretton Woodseko erakunde ekonomikoak, hasieran EBTako nagusitasunpean eta zazpi Nagusien taldearena geroztik izan dira 1944ez geroztik diseinatu dutenak mundu mailako politika ekonomikoa. Kokapenerako edozein erabakia erakunde hauetatik sortu, zirriboratu eta bermatu da.

IparraHegoaren arteko Harreman arazoa desitsuratua dagoela garbi da. Finantzial eta Nazioarteko Ekonomia (B.M., N.M.F., G7) gune nagusiak eta Hegoaldea eta herriaren arteko harreman arazoak hitzegin beharko zen, beti ere jakitun garelarik Iparraldetik gure bidezko irteerak ezinbestekoa duela egungoa den ordenu ekonomikotik oso ezberdina den beste batetara pasatzea.

Eredu ekonomiko kapitaUstak ezinbestekoa du hazkunde kuantitatiboa, horixe baita Iparraldeko sektore batzuen eskuetan ondasunpilaketaren gakoa. Merkatuen globalizazio ahaleginetan sakondu nahirik, multinazionalen onurako ulertu beharko liratekeen Uruguayko Rondan GATTeako akordioak, oraindik behar bada gehiago bortxatu dute merkatu lokalen irikiera munduko merkatuaren logikara. Bere horretan kokatzen dira Maastricht edo Copenhaguen diseinaturiko politikak.

Politika eta akordio hauen azken helburuak lortzeko, gero eta elkartuagoak dauden kapital transnazional hauen optimizazioa, N.M.F., 7G, eta B.M.k, ezinbesteko papera jokatzeko dute gastu publikoan eragiten —"gastu produktiboetara" "berbideratzen" den gastu publikoa—, enplegu eta produkzio mailetan eragiten, gizahitzarmena ahultzen eta Iparraldean bertan txirotasuna handitzen.

Helburu hauek bideragarriak izan daitezten, defentsa politika tinkotzen da —errepresio eta koakzio handiarekin, norberaren mugen barneko defentsa— eta maximo historikoan garatzen dira NATOk aurrekontuak, zeinak hastapenean balio bazuten URSSeko asmo espansionistak geldierazteko, behin hau desagerturik, Ordenu Ekonomiko Berriaren zaindaria bilakatu baita.

Hau da desafiatzen gaituen Ordenu Ekonomiko Berria (OEB), ezker zale, ekologista edo berdin zapalkuntza ekonomikoa eta sozialen beste edozein teoria askatzaileekin identifikatzen garen guztioi. Bere izenean ere gezurtia den (OEB), ezen zail du Berria izatea espiritu zaharkituari dagokiona, eta nekeza du ere Ordenu izatea ezberdintasun zaratatsuan oinarriturikoa. Dagoeneko ez zaigu nahikoa sistema produktiboaren beregokipenaz hitzegitea, edozein dialektika delarik, errealitatea interpretatzeko nahikoa ez den teoria batean oinarritzen ari baikara. Etekingalaren kontuetara eta geure bizitzen helburu lez erabilpen eskaseko tresnen jabetza eta kontsumismoa jotzen badugu plangintzak idarokitze garaian, munduko ikuspegiaren oinarrian eta giza psikologian iparizar faltsu horrek gure bizitzak zuzentzen duen bitartean ez da giza aurrerapenik emango.

IPARRALDEKO JOERA EKONOMIKOAK

EB, Kanada, Japonia, EEE, eskandinaviako ekonomiak eta hauen inguruko beste batzuk osatzen dute Iparraldea. N.M.F.k igorritako "aholkuak" oinarria izanik, guzti hauen egoerak berdintsuak dira. Aholku guzti hauetako bihotzean kezka bat: ondasunen maximizazioa eta ondorioz aberastasun pilaketan gehikuntza.

Ondasunak maximizatzeko bi politika uztartzen dira:

1. Alde batetik, sodaltaren kaltetatan, produkzioaren plusbalia zati handiago bat bideratzen da kapitalera. Hau egiten da bi eratarik: soldatak K.P.I.ren azpitik igotzen, gehi produktibitatea, bai behin betiko lan kontratuak, behin behinekoak ordezkatzeko eskubiderik gabe, okerrago ordainduak edo bestela lankanporaketen kosteak merketzen (lan merkatuaren malgutasuna).

2. Bestalde, gastu publikoaren bidetik, produkzio pribatuko kostuaren zati handia (presupuestoaren beregokipena gastu produktiboetara) "sozializatu" egiten da.

3. Helburu bikoitza duen gastu publikoaren murrizketa aldarrikatzen da: erakunde publikoak orain arte gestionatu duten B.P.G.en zatia askatu eta seguridade soziala bezalako lorpen handiak bailiran, merkatu handiak, ekimen pribatuen eskuetan laga.

4 Azkenik, eraberean, inbertsioa "bizkortzeko" asmotan, zama inpositiboaren errentak "arindu". Honek aldi berean, lan errentaren zama fiskalaren gehikuntza dakar.

LAN MERKATUAREN MALGUTASUNA

Telekomunikazio teknologiak garapen handia lortu du. Neurri handi batean produkzio ekimena planetaren edozein eremutara eraman ahal izatea, esku lan zintzoena, lan egun luzeena eta bere lan balidantzak murrizak duten lekutara.

Honekin, Iparraldeko langileei garrantzi historikoa duten lorpenen galerak "onartzeko zori triste" abagunean ezarri nahi zaie, negoziazio kolektiboari uko egitea, soldatak garai berrietara egokitzea, hala ez balitz lantoki osoa izan ahal da desmuntatua eta "eramana".

Aldi berean errepika dabilta krisiaren errudun nagusiak errenta salarrialak direla, Batasun Lan Kosteen (B.L.K.) igoera iraunkorrek K.P.I.n igoerak baino altuagoak izan direlako, plusbalien banaketa berorekatu behar dira kapitalaren mesetan, etekinen hazkundeak balio dezan inbertsio berriak pizteko, eta hauek lanpostu berriak sortzeko.

Ez dugu hemen garatuko (B.L.K.)¹ konzeptuaren barnean inphzituki dagoen gezurra, adieraziko ez dugun bezala zuzenki adierazten den traslazioa etekinak inbertsio berriak lanpostuak ez dela ematen. Nahiko da adieraztea azken 20 urtetan etekinen kopurua E.E.E.n %80an gehitu zela enplegua %9an igotzen zenean (Boletin de las Comunidades Europeas, 6/93 eranskina).

Produkturiko ondasunen hazkunde iraunkorra ikusten ari gara, sistema produktibora kasik itzultzen ez diren gero eta handiagoak diren etekin enpresarialak hain zuzen. Aide batetik, luxuzko kontsumotara zuzentzen dira eta bestetik inbertsio espelulatiboetan, gero eta parte handiago hartzen, "burbuja" efektu handikoa diren "geroaldiko merkatuak" deritzan horietan.

Honek garamatza ondasunak gero eta esku gutxiagotan egotera, egunetik egunera ondasun truke soila bere lana eskaini ahal duen gizarte sektore zabalena, gero eta pobregoko dago. Lan merkatuaren malgutasunak

Iparralde osotik ari da zabaltzen txirotasuna. Iparraldearen ziurtasun ekonomiko eza zabaltzen ari den une berean, "eritzi sortzaileak" behin eta berriro ari dira "dunpingsoziala" deritzan horrekin, ardurak hegoaldeko langilegoari leporatu nahian.

Era honetan Hegoaldeko langileria, Iparraldeko kapitalisten langileria zertxobait gehiago ordaintzeko zerbitzen duen etekin erraldoiaren eraikuntza bere baitan eramateaz gain, "errudunetan" bilakatu dira, azken hauen "lehiakide zuzenetan". Askoz gutxiagotik lan gehiago egiten dute, bai beren herrialdetan ezarritako multinazionalatan, bai beren burgesiarentzat (Chinako boonaren kasuan) Iparraldekin produktu merkeagoz lehiari sartzeko asmotan.

1

Hegoaldeko ustiatuetan errudunak bilatzeko gogoetaren tentazioa eta arriskua handia da. Xenofobia, arrazismoa eta faxismoaren hazkundea Iparraldean, hortik dator. Munduko langileriaren enfrentamendua bilatzen duten arrazoinamendu pozointsu horiek desegiten ahalegin behar dugu. Ez da nazioarteko langileriaren arazo zaharra. Gure garaiko arazo berria, areagotzen joango den arazoa. Dagoeneko ez da elkartasuna edo "ustiatu gaixo" horiekiko errukia, elkarrekiko estrategia eta koordinakuntzaren beharra baizik.

Hegoaldeko ustiapenari elkarren artean eman beharreko erantzuna tartekatu behar zaio, Hegoaldeko langileek apurra baten trukez lan egiten dutenean, ez da soilik txarra beraientzat, Iparraldeko langilentzat ere, deman sartzen baitira multinazional bereko lanpostu baten bila ere bai.

AURREKONTUEN BEREGOKIPENA

Burges iraultzaren garaitik, Estatuak eta bere instituzioak, produkzio-bideen jabegoak zeuzkatenen tresna besterik ez dira izan. Egia izan arren garai batzuetan langile klaserekiko nolabaiteko amoremateak egon direla, amoremate hauek beti ezinbestekoenak izan dira beharrezkoa den gizabakea mantentzeko. Giza-bake horrek arriskurik ez badu, edo zuzentzeko beste tresna batzuk badaude, amoremateak aldatu edo desagertu ahal dira.

Estatuen funtzio klasiko hauek, aginte ekonomikoaren menpeko funtzioak, Iparraldean areagotzen ari dira. EEEen, Maastrichteko Itunari garbi aski marraztuak agertzen dira.

Ez daukagu lekurik agertzeko, eta hau beste ezbaia da, aurreko giza-amoremate horien galeretara erabat loturik dihoazen, bestalde, zein arrazoiak ahalbideratu duten areagotze hau. Baina, ez adieraztekin ezin du utzi sozlaia gabe aurrekusten den errealitatea, "merkatu indarrak" urrunegi joaten ari dira eta nahiz eta norabide batzuetan uka ezinezko aurrerapenak eman diren, aurreko garai gogorrago baten eredura itzultzen ari gara, non indartsuenak biltzen zuten ondasun handienak eta txiroenak superbizitzeko gutxienezko baldintzak ere ez zuten.

Maastrichten indarturiko estatu klasikoaren funtzioen arteko bat, produkzio handitzeko behar besteko guztiak kapitalaren pean jartzea legoke, beti ere fondo publikoekin, eta honek kostu bezala onartuko balu, etekin tasaren jeistsiera lekarke.

Beste funtzioa, indar errepresibo-behartzailen iraupena da, beren biztanleen artean mantentzen dezaten "erabakiriko ordenua". Hau da, errekurso ekonomikoaren erakuntza eta banaketaren ordena eta filosofia ziurta dezaten dauden botere taldeen nagusitasuna bermatuz. Bestalde indar hauek, "kapital nazionalen" interesen "iraupena" ziurta dezaten; funtzio hau indartzen ari da gune zabalenetan (defentsa sistemaren indartzea E.E.E.n, ea.)

Bi funtzio hauek indartzeko aurrekontu publikoaren banaketa berantolatzen ari da. Azpiegitura kapituluaren partida guztiak (bai garraioak bai telekomunikazioak) puzean, eta defentsa gastuak (Barne ministeritzarenak hala Defentsarenak) handitzen.

Azpiegituren inbertsioen eztabaida bizirik dago. Mundu mailan sortzen dituen ekologi arazo nagusiaz gain, eztabaida ekonomikoa eta soziala dago. Azpiegitura hauek, kasu gehienetan, ez dute erantzuten herrien arteko harremanak handitzeko giza interesari, interes ekonomikoari baizik, askotan nazioartekoak, zeinak zenbait kasutan azpiegituraren bidezko erabilpenaren aurretik desagertzen

diren. Burugabekeria eta perspektiba ezaren adibide argigarria, askoren artean, MadrilSevillaren arteko AHT² dugu.

Sozioekonomia eta ingurugiroaren ezbaietetatik at, azpiegituretako gastua da eraginkortasun eza —ezarririko helburuak eta lorpenen arteko azterketa— eta bideragarritasun eza — helburuko, kostu publikoa eta aukera sozialaren kostua azterketa— maila altuenean agertzen duena. Honi gehitu egin behar zaio bere baitan isten diren ustelkeri politiko eta ekonomikoaren maila handiak kontzesio eta exekuziotan (Italia, Espainia, Frantzia, EB,, zipriztinak mail politiko handietara bustitzen dutelarik). Guzti honek pentsa erazten digu azpiegitura batzuk eraman dezaketen produktibitatearen balizko hazkundearen etekina, mail makroekonomikoan, erabat indargabetuak gelditu ahal direla.

Bermaturiko bigarren saileko gastuan (gastu polizial eta militarra) ez dugu sakonduko, foru honetako partaide guztientzat garbi aski baitago noraino iristen diren. Azpimarratu soilik Iparraldeak "eguneratu" egiten duela bere armamentua Hegoaldeari "asmoak kentzeko", eta Golkoaren Gerla, behin arerio komunista desagertu ondoren ideologikoki elikatzeko aitzakia izan zela.

Armamentu sailak zurgatzen duen errekurtsio ekonomikoen zatia hain da handia, eta hainbeste "dim beltza" mugitzen duenez, kontabilizatu dirutzak iceberg muturrak besterik ez direla.

Egun hauetan Martin Marietta eta Lockeheed bategiteaz hitzegiten ari da, zeinak EBtako defentsa aeroespazialaren munduko lehen taldean bilakatu diren, eta bategite uean eskabidekarteraren zifra hiru biloikoa zen, 170.000 enplegatu izanik.

1982an, "Desarme-Desarrollo un dilema linico y total"en D. Krieger eta Jan Van Ettingerek agertzen zutenez, armamentuan, dolar miloitik gora gastatzen zela minutuko.

Ruth Legerek "World Military and Social Expenditures", agertzen duenez, eginten den gerla-abioi bakoitxako nahiz oso konplexua ez izan, 40.000 herri-faxmaxia egin zitezkeela.

Lor daitezken zenbaki guztien gainetik, N.M.F. eta bere eranskinak ezinbestekoa dute disuasiorako hainbat elementu mantentzea, hala nola kasik saldu aurretik teknologia berak zaharkitzen dituen armen truke, herrietatik erauzten den benetazko ondasunen kontrola.

GASTU PUBLIKOAREN MURRIZPENA

Iparraldeko estatuetan gastu publikoaren (aurrerantzean G.P.) nibelak nahiko ezberdinak dira estatu ezberdinen artean, sektore publikoaren tamainaren arabera (enpresa publikoa, Erakunde Komertzial Autonomoak, Erakunde Administratibo Autonomoak,...) batz bestea %40 eta %50 artean mugitzen dutelarik. E.E.n, Gastu Publikoa 1992an B.P.G.ren %48,3 izan zen, bere muturrak Danimarkan %56,8 eta Britainia Haundian %40,9 izan zirelarik.

G.P. ongizatean ere aide handiak daude, eta hemen ezin zaie leporatu ekonomiaren pribatizazio ezberdintasuni, gizababes maila ezberdini baitagokie. Garapen handiena Mendebaldeko Europan, Ongizatearen Estatua deritzan horren jaoiterria, lortu dute. E.E.n 1991an giza gastua, batz bestea, B.P.G.ren %26a izan zen, mutur batean %32,4 Holanda eta bestean %19,4kin Portugal. Norvegiako lurraldeen giza gastua historikoki E.E.n baina altuago izan da, Suedian, 1991an B.P.G.ren %37,6a lortu delarik.

1973ko krisialdiaren ondorenean eraso ideologikoari ekin zitzaion gizarte ongizatea deritzan sistemaren desmantela-mendurako (Pentsioen Fondu Pribatuen uholdea, Seguritate Sozialeko prestazioen murrizketa errealak, sanitate eta hezkuntza publikoan murrizketak, e.a.). Hamarkada luze baten ostean non ekonomia ofizialen teoriko guztiak erasotu diguten Ongizatearen Estatua ideiarekin, sistema produktiboaren itogarri eta neurrian handiegia, Maastrichteko akordioak bidea ematen zioten bere desmantelamendu arizari, aide batetik produkzioerako errekurtso ekonomikoak askatzen ari direla esanik eta bestetik ekimen pribatuaren eskuetan utzirik ekonomiaren puska gozoena.

Maastrichten —N.M.F. aholkularia izanik— defizit publikoaren murrizketa hitzartzen zen, hau izanik E.E.ko herriek lortu behar duten gauzetako bat Moneta Bakarreraren konbergitzirako. Defizit publikoa murrizten da bereziki bi bideetatik: bata abaguneakoa, sektore publikoan errentagarriak diren zatiak sektore pribatuari salduz (entrepresa publikoak, telekomunikazio sare publikoak, ea.) eta bestea, gastu errealaren maila gutxituz.

Iparraldeko herri soilarentzat etorko diren ondorioak epe ertainera handiak dira:

- Alde batetik, teoriarik sektore publikoak kontrolatzen zituen entpresak, erabilpen publikoaren izaeragatik edo nazio estrategia produktiboengatik, kapital pribatuaren eskuetara pasatzen dira (ia beti transnazionala). Honek, sektore osoak monopolizatzeaz gain, lehen esan bezala, munduko produkzio osoaren beregokipenaz mehatxatzen du.

- Bestalde, CP-ren mailaren jeitsiera gastu sozialetan biltzen da. Lurralde komunitarioen aurrekontuak aztertzen badira, guztietan ildo berdinak zirriborratzen dira: azpiegitura gastuen hazkundea, defentsa eta barne ministeritzan, ohizko eta pertsonal gastuetan tinkotasun handia (I eta U kapituluak) eta ondorioz, gastuaren murrizpena, gastu sozialaren bilduma osoan bideratzen da kenketa.

Hamazortzi miloiko langabetu kopurua zenbatua dagoen E.E.n (Belgika, Irlanda eta Danimarkako biztanlego batuketaren beste), lanpostu sortaraziko duten inbertsio produktibotarako gaitasun eza ikaragarriekin, langabezi taldeak gazte eta emakumeen artean, hezkuntza gutxi edo ertainekoan biltzen direnean, 45 urtetik gorakoetan birmoldatutako sektoreen soberakinekin osaturik zeinaren bamean gaixotasunak aparteko garrantzia hartzen ari diren, desenplegu gastuen gutxitzea, hezkuntzan eta sanitatean, horrek daraman bikoiztasun soziala non faktore eragile guztiak uztartu eta elikatzen diren, efektu biderkatzailearekin, korapilo hortatik irtetzea gero eta zailagoa egiten delarik.

Iparraldekoen begien aurrean ari da txirotasun berria bersortzen. Giza ziurtasun eza bizitza sozialaren erdi erdian kokatzen ari da, hirietatik herri txikietara zabaltzen.

Behartsu berri haiek, lana kentzerakoan, giza onarpena kentzen zaie, hezkuntz berzklajea, eta honek ondasun baloretan oinarritzen den gizarte batean aldaketa psikofisikoak dakar, baztertze maila berri bat, zeinak, behar bada, arrazio etnikoei, erligiosoei edo kulturei ez erantzutean maltzurkeri handiagoa izkutatzen duen.

Erdigune sozialaren portaeratik, inseguritatearen ondorio ezkorrak senti erazten zaie, ez soilik osatzen duten taldea osatzen dutelako, berezko talde horretan, bere izatean betetzen duten funtzioagatik baizik. Ondorioz, gainontzeko taldeetatik urruntzea dakar, enfrentamendu bortitza edota bere buruaren txikizioa, ideiak batzuk oinarrian dutelarik —komunikabide ofizialek sortu eta zabaldurikoak— zeinak orokorrean eta banan bana era kritikoa aztertuz, isolamendua sortarazteko funtsarik ez duten, ez eta aurkamendu suntsitzaile fisiko eta espiritualetik pasatzen duten honebeste giza talde pasa erazteko ez soilik Hegoaldean, baizik eta hemen, Iparraldean ere.

"Garapena" da agian N.M.F. gehien darabilen hitza, baina, zer da garapena? GARAPENA denaren gogoeta bat zirriboratu beharko da sikiera. Mendez mende lotu da txirotasuna "faktore ekonomiko", bere oinarritzko funtsa haruntzago bilatu behar denean, "txirotasuna, giza disfuntzio lez, giza ALDAKETAK edo mutazio prozesuak daramanten jazkera besterik ez da".³

ZAMA FISKALARENBERBANAKETA

Aitatu dugu dagoeneko N.M.F.k bere azterketeta ekonomikoetan duen oinarria: kapitalaren etekinak handituz gaur egun, biharko egunean itzuli daitezkeela, etzi lanpostuak sortuz. Hau oionarria izanik, etekin pribatua gahitzen duten orain arte aurkezturiko neurriak aplikatzeaz gain, Hazienda publikoan ahal den gutxiena emateko, behar besteko neurri fiskalak garatzen dira. Hau da, produkzio pribatuko gastuen "sozializazio" handiagoren garaian gaude, eta etekinen "pribatizazioa" handiagotan.

Estametako erreforma fiskalen joerak:

- Kapital errentari buruzko zergaren errententzioen gutxitzea, epe ertain-luzera tipo zeroaz hitzegiten ari delarik. Hori lortzeko, kapitalak, zorioneko paradisu fiskaletara joateren mehatxu iraunkorra.

- Elkarrei buruzko zergaren batz besteko ezarpen tipoaren murrizketak bai portzentai inpositibo teorikoaren murrizketetatik exakzioetatik, produkzio eta enpresa mota bati laguntza fiskalekin batera.

Aurrekontu publikoak bi finantzio irurri dauzkate bereziki: Zor Publikoaren emisioa eta zerga diru bilketa. N.M.F.tik jarraipen haundia ematen ari zaio Zor Publikoaren emisioari, sektore pribatuari likidez kentzen diolako, zorpetze maila altuena izanik Maastrichtek konbergentziarako ezarritako baldintza bat (Zorpetze publikoak B.P.G.ren %60tik gora ezin da pasa), beraz, inorri ez zaio eskapatzen berdintasun kontableak eta E.Z. eta K.E.Zren gutxietze inpositiboak zorpetze mailakin ezin badira orekatu, gelditzen den gauza bakarra gainontzeko bilketa tresnaren hazkundera da: Pertsona Fisikoen Errenta Zerga zuzena modura eta (B.E.Z) Balore Erantsiaren Zerga ez zuzenen barruan.

P.F.E.Z.ren bilketa igoera ez da planteatzen ari efikazia eta iruzur zaku horiei frente egiteko (Iparraldean oso edatua dagoen entrepresari eta autonomoen artean ihesa fiskala), ez eta zergaren epekako hazkundera ematen bada errenta handienetan ematen bada ere, eta honek esan nahi du besteen kontura lan egiten dutenen nominak sumatu egingo duela berriro ere zama fiskalaren igoera, honakoan lekuz kanpoko.

Benetan bermatu nahi izango bazen neurria, aberastasunari ezarpenek agintzea izango zen bidea. Estatuaren arteko aberats nagusien %10 horri jasotako dirutzak defizita publikoak jeisteko, edota langabetuen aldeko "zerga negatibo" mordura erabiliz. Alor makoroekonomikoan emango liratekeen onura askoren artean, nazioarteko sukar espekulatiboa geldi erazteko balioko luke.

Zerga ez-zuzenen artean B.E.Z.ren igoerak oso efektu kaltegarria du lan errenta txikienetan, bereziki giza bermetatik abiatzen direnentzat. Izan ere, kontsumo zerga baita B.E.Z.a, eta errenta guzti hauek kontsumora zuzenduak daudelako (beste funtzioak betetzeko eskasia dela medio).

Honek eragiten du errenta eta zergaren arteko harremana kaltegarria izatea, zerga fiskala ez zuzena ohi den baino askoz altuagoa izanik.

ONDORIOAK

Berdintasunaren aitormenak ez du benetazko demokrazia sortarazten, berdintasuna eraikitzea baizik

Gure garaiko arazo nagusia, eta bide batez ezker osoarena, "garapen ekonomiko" deritzanaren mugarrigabe, benetazko giza aurrerapena ematen den sustraietatik urruntzen ari zaigula, aberastatsun materialaren izenean eta teknologiaren apologipean.

Ezinbestekoa dugu giza politika berdefinitzea, izaera propioarekin eta ez ekonomiaren tasun moduan.

Ez da soilik "langilearen bizibaldintza hobetu behar", ez baita nahikoa gizakia produkzioaren morroi izatea, trukean bere "portaera jatorra" nabarmen izan delako, etekina jasotzea. Edo baldintzak hala moduzkoak izatea, baizik eta **produktio berak aldatu behar dituela baldintzak gizakiaren berezko ongizateari**. Honek dakar PERTSONA bere "munduarekin" harremanetan jartzea, bere "ingurunearekin", bere "giroarekin".

Iparraldean, seguritate sozialetik talde eta ingurugiro inseguritatara pasatzen ari den garaian sartu gara. Txirotasunaren igoera amaigabea da bere, gaiarteko terminoan ez soilik ekonomikoki, humanoki, kulturalki, tradizio historikoaren atxekimendu galeraren zentzuan, norberaren ingurugiroarekiko lokeraren haustura eta naturaren txikizioa boomerang ondorioak dakar geure bizietan, ahenazioak batzen baitu inbertsonalitatea eta materialismoa.

Ondorio larrien artean, bat apartekoa da, pentsamendua eta irtenbide praktikoak bilatzeko borondadearen blokeoa. Era honetan, ezkerak zimeltzen diren bitartean —ildo ofizialetara dagoeneko igo ez diren gutxi batzuek—, N.M.F., B.M. eta 7N, Hegoaldea txikitu ondorenean, Iparraldean ari dira jartzen atzamarrak, eta arrastoa bistan da.

- Langabeziaren egoera, bereziki gazte eta emakumeena, bizkoiztasun berezien bat sortarazten du historikoki gizarte garatuetan.

- Giza miseria, Instituzioen zitalkeria politika eta balore ustelkeria, arrazismoa, ingurugiroaren degradazioa.

- Mende bukaerako "piraterian" bilakatu den nuklear arrisku handia

- Europako bihotzan kokaturiko gerla.

Ekintza guzti hauen artean inoiz baino biziago dago Bertolt Brecht, dagoeneko ez da erreakzionatu behar Hegoaldeko bizilagunarengatik, geure etxetan sartu direlako baizik.

Ekintza hauek badute iturburua, ekimen historikoen ondorioa dira, ez naturaren aginteaz.

"Garapenaren" totem faltsuak eraman du gizakiari nitasunatik aide egitera, besteekiko harremanak mekanizatzen, isolatzen eta gure herri edo unibertso ingurugiroan aurrera joateko ezinbesteko zen berezko ELKAR-BIZITZAREN proiektutik urruntzen

ELKARTASUN hitza berrartu behar da, ez usadiori gainetik jartzen dion zentzu aburgesatuan, ELKARBIZITZAREN ITUNA modura baizik.

- Elkartasuna-elkarbizitza nutrizio eta osasun maila gizapekotan daudenekin.
- Planetako ekosistemekin elkartasuna-elkarbizitza.
- Elkartasuna-elkarbizitza errekurtsu naturalen zainketa eta erabil-penean, bereziki ura haizea eta berziklagaitzak diren energiekin.

Elkartasuna elkarbizitza desnuklearizazioarekin, ohizko eta ez-ohizko armen gutxitzekin.

- Elkartasuna elkarbizitza kultura eta herri-nazio ezberdinekin, humanitatearen adierazpide ezberdinak defendatuz, elkar lehiarik gabe, "produktibismoa" eta "kontsumismoaren" izenean zapalketa kulturalik gabe.

Garcia Lorcak gogorazten digu nahiz eta "Arratsaldeko bostak" izan, Hegoaldean eta Iparraldean, humanitatearen ordua ilundu arte luzatzen dela...